

Tinko euskara elkar-
tearen 20. urteu-
rrenean hainbat
ekintza egiten ari
dira. Hurrengoa,
“Yugo & Lala” peli-
kularen estreinaldia, azaroaren
16an, Tolosan, Pirritx, Porrotx
eta kuadrillarekin. Opariak ba-
natuko dituzte, bideo sortak
zozkatu... Aitzinetik, Donostia-
ko Fantasiatzko eta Beldurrezko
Astean eman zuten animazioz-
ko film txinatarra.

Hurrengo urratsa oraintxe
negoziatzen ari diren bertze pe-
likula bat erostea izanen da, txi-
ki-txikientzat hau ere: “Pim &
Pom”. Urtarrilerako, webgune
berria prestatuko dute eta ho-
rretan ere buru-belarri ari da
adin guztietako bost emaku-
mez osatutako lan taldea. Do-
nostiako Zuatzu parkean duten
bulegoan elkartu gara gu elkar-
tearen sortzailearekin, Marian
Galarragarekin.

**Kanpoan begiraleak edo fil-
mak aukeratzen dituzten per-
tsonak dituzue, ezta?**

Elkarteko bazkideak dira eta
munduan zehar banatuta dauz-
kagu. Eibarko mutil bat Suitzan
dago, unibertsitatean lanean.
Ikus-entzunezko banatzaileekin
harreman handia dauka eta be-
rak lortu zigun, adibidez, “Wa-
llace and Gromit”, Pariseko ba-
natzaile batena. Beste bazkide
bat daukagu, Donostiako neska
bat, Los Angelesen bizi dena be-
re senarrak Warnerren lan egi-
ten duelako, hango zuzendari-
tza batean. Beti abisatzen digu:
‘Film oso polita egiten ari dira,
zuen estilokoa...’

Zein da zuen estiloa?

Haurrentzat pelikula dibertiga-
rriak egiten ditugu, oso ondo
pasatzeko, baina edukia dute-
nak. Balioak lantzeko balio be-
har dute, hau da, Disneyren fil-
mak, adibidez, ez zaizkigu
batere gustatzen.

**Badakizu zergatik ez dituen
Disneyk filmak euskaratzen?**

Bai, gorroto gaituelako. Gu, eus-
kaldunak gara euskarak hutsa
balio duela uste dugunak. Nire
ustean, Disneykoek pentsatzen

«Haurrentzako
pelikula
dibertigarriak
egiten ditugu, baina
edukia dutenak.
Balioak lantzeko
zerbait izan behar
du, Disneyren
filmak ez zaizkigu
batere gustatzen»

«Nafarroan
euskarazko filmak
umeentzat ematea
da amets bat, baita
areto komertzial
guztietan gutxienez
haurrentzako diren
pelikulak gure
hizkuntzan ikusi
ahal izatea ere»

dute euskarak ikaragarri balio
duela, eta hura bultzatzen la-
guntzen badigute, ez dakit zer
egingo duela. Badaki herri bat
hizkuntzak egiten duela, eta gu-
re hizkuntza euskara da. Or-
duan, herri bezala ito nahi ba-
gaituzte, hizkuntza ito behar
dute. Baina hori beraiek dakite,
guk ez.

**Euskarari begira, zer irudi-
tzen zaizu zinemaren panora-
ma?**

Tristeza, benetan tristeza. Duela
20 urte, lan honekin hasi gine-
nean, benetan pentsatzen nuen
gehiago egingo zela. Aurreneko
pausoak eman genituen, diru-

laguntzak lortu, eta hortik au-
rrera bazirudien euskara maite
dugunok eta dutenek, denen ar-
tean egin beharreko gauza bat
zela. Interes ekonomikoek gain-
ditu dute gainerako borondate
guztia.

**Euskarazko zinema ez delako
errentagarria?**

Alde batetik, horregatik; beste-
tik, oztopo egiten duelako. Are-
toak betetzen dituzten film
onekin batera paketea saltzen
dute banatzaile handiek. Or-
duan, areto gutxi geratzen zaiz-
kie zinema komertzialei. Eta as-
kotan areto guztiak dauzkate
gaindituta. Film batek ondo

funtzionatzen badie, hurrengo
astean ezin dute kendu gurea
jartzeko, dirua irabazten ari di-
ra eta hain gutxitan gertatzen
denez... Gertatzen zait zinemara
joan eta bakar-bakarrik egotea.
Ez da euskarazko filmak ez dire-
la ikusten, besteak ere ez! Espli-
kazioa da paketea doazela...

**Euskarazkoak ez dira sartzen
pakete horietan?**

Ez dakit... “Ocho apellidos vas-
cos”, agian!

**Konplikatu da zirkuituan
sartzea, ezta?**

Uff! Baina ez ezinezkoa, boron-
datea eta gogoia edukiz gero.



«Zinema gakoa da euskararen normalizazioan, ametsak eragiten dituelako»

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak edo Hizkuntza Politikak, edo dagokionak, hiriburuetakoa aretoren batean beti euskarazko filmak egotea agindu behar luke, gutxienez haurrentzat.

20 urte dira jada hasi zintela. Eta filmak badituzue. Arazoa gehiago da ezin dituzuela banatu...

Zinemaren mundu honetan okerren pasatu dudan momentua izan da film bat eduki estreinatzeko, estreinatu beharra, eta ezinean ibili naizenekoa. Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza batzuk ematen zituen filmak bikoizteko, eta abendurako

estreinatu behar ziren, bestela, dirua itzuli behar zen. Martxoan Sadekoei filma eskaini, eta haiek ezetz, abendua iritsi eta, azkenean, Warnerrera jo, eta akordio batera iritsi igandero pelikula bat estreinatzeko... Eta orduan haserretu egin zitzaizdan Sadekoa, nola gainera!

Traba dela dirudi positiboa izan beharrean. Ikuspegi hori aldatzen ez den bitartean...

Gainera, kontua da ez direla euskaldunak. Gauza hauek egiteko euskara maite behar duzu, bihotzez, bestela ezin da. Eta euskaldun ez direnei eta euskarra maite ez dutenei nola eskatuko diezu gogor ahalegitea! Hori gorroto ez dutenean.

Eta garrantzitsua da, batez ere umeentzat, zinema euskaraz ikustea hasieratik.

Oso garrantzitsua, subkontzientean euskara gauza polit bat bezala gelditzen baita. Bestela, eginbehar gisa geratuko da eta hori ez da inoiz ona. Zer ikusten dute gaur egun haurrek? Gurasoek beren artean gaztelaniaz hitz egiten dutela, baita beste guraso batzuekin ere, eta umei euskaraz egiten dietela. Eta umeek lehenbailehen hazi nahi dute, lehenbailehen helduak izan eta helduak imitatu. Nola? Gaztelaniaz hitz eginez. Ahalegintxo bat egin beharko genuke denok euskaraz gehiago hitz egiteko euskaldunon artean.

Hor, zinemak garrantzi handia du.

Handia ez, ikaragarria. Eta badakizu zergatik? Zinema ametsak eragiten dituen tresna da, nik ezagutzen dudana bakarra. Horretxek irudimena pizten dizu eta ametsak eragiten ditu. Eta txikia zarenean, ipuinek, filmeek, liburuek, horiek pizten dute irudimena. Mezu hori zein hizkuntzatan jasotzen duzun, hizkuntza horretan ametsak egiten hasiko zara, eta hizkuntza horretan pentsatzen hasiko zara, eta zein hizkuntzatan pentsatzen duzun, hori aterako zaitzu lehen hitz bezala.

Haurren belaunaldi bat egon zen, duela 15-20 urte, izugarri

aberatsa euskararen aldetik, ETBk programa zoragarriak ematen zituen arratsaldetan haurrentzat, klubak zeuden, halako giro bat, euskarari duen kategoria emanez.

Lakuako Gobernuak duela hogeitau urte zinema aretoetan film euskaldunak ematea ezinezkoa zela erran zizun.

Beraiek esperientzia txar bat izan zuten pelikula bat euskaraz bikoizten saiatu zirenean. Pelikula hori zentsuratuta zegoen, zati bat kenduta zuen. Hiru banda egoten dira: soinu banda, beste soinuena (pausoak, euria, zer bait lurrera erortzean entzuten dena...) eta hirugarren bandan egiten da bikoizketa. Gero, beste bi bandekin nahasketak egin eta filma egina gertatzen da. Zer gertatu zitzaizen? Jatorrizkotik egin zuten bikoizketa eta, gero, nahasketak egiten hasi zirenean, bandak ez zetozen bat. ‘Hau ez dago egiterik’ pentsatu zuten. Baina guk erakutsi genuen baietz. Euskarara bikoiztuta areto komertzial batean estreinatu zen aurreneko filma “Alargunen gailurra” izan zen, duela hemezortzi urte.

Nola oroitzen duzu?

Izugarrizko emozioa sentitu genuen, harrera oso ona izan zen. ETBk babestuta bikoiztu zen, eta Bilbon estreinatu, agintariak bertan zirela. Dena oso ondo zegoen, oso ondo zihoakion ahotso aurpegiari. Hura poza irteeran jendeak ‘ez dakit euskaraz edo gaztelaniaz ikusi dudana’ esatean. ‘Halako naturaltasunarekin, bat-batean abstrakzio bat egin dut, mezua jaso dut, baina ez galdetu zein hizkuntzatan’.

Hori da helburua?

Bai. Bestela izugarrizko ahalegina egin behar duzu zer esan duen ulertzeko eta hori oso txarra da.

Euskara naturala eta kalekoa izatea ere garrantzitsua da. Ez da egon euskara akademikoe-gia egitearen arriskurik?

ETBn gertatu zen hasieran. Gainera, gaztelaniazko bikoizketa- ra ohituta geunden, oso ona de-

MARIAN
GALARRAGA
TINKO ELKARTEA

1994an lanean hasi eta 10 urtera zinema euskaraz ikusteko ametsa bete zuelako hunkituta jaso zuen Anton Abbadia Saria. Hamarkada bat geroago, ametsa pixka bat zapuztu, bertzerik ez da egin

na. Gu, hasiberriak, kortse batean sartuta, oso akademikoa... Gero, beste *handicap* bat dugu: bizkaieraz, gipuzkeraz, nafarrez... Hori enkajatzeari izan da zailena. Baina naturaltasunez egin, eta nahikoa. Nire ustean, lortu da naturaltasun hori eta gauzak normaltasunez egitea.

Ez al da gertatzen bikoizketetan pelikula batean eta bertean ahots berdina aditzea? Bai. Gaztelaniaz ere gertatzen da. Bikoizlea izatea ez da hain erraza. Zenbat eta lan gehiago egin, orduan eta hobe zara, eta zenbat eta hobe, denek nahi zaituzte, berme bat zarelako. Eta gaur inork bikoizten ez duenez, bikoizlerik onenak aseguruak saltzen ari dira, ez dagoelako lanik. Orduan, hurrena film bat bikoiztu behar dugunean...

... Kostatzen zaizue bikoizleak topatzea... Gero eta gehiago. Gutxieneko batzuk izan behar lituzke Gobernuak, ETBk, ez dakit zeinek, euskarazko bikoizketaren kalitatea bermatzeko. Uste dut minimo horiek ETBn bete behar liratekeela. Astero film bat emanez bikoiztuta, edo haurrentzako telesail bat, edo filmak arratsaldetan.

Nolakoa da zuen lan egun bat bulegoan? Garaiaren arabera. Orain, neska bat dago Errenterian, goizeko emanaldiarekin; beste bat Zornotzan, beste emanaldi batean. Langile bat kotxea hartu eta Bizkaiko eta Arabako emanaldiez arduratu da, eta beste bat lan berdinean dabil Gipuzkoan. Pertsona batek koordinatzen ditu emanaldiak bulegotik. Normalean, hamar film egiten ditugu ikasturtean, adineko bi. Horrekin osatzen dugu egutegia, puzzle bat bezala. 3 eta 15-16 urte arteko haurrentzako filmak dira. Zinema bete egiten da beti. Langile bat arduratzen da gauzak behar bezala joateaz eta, bukatutakoan, hurrengo eguneko emanaldiaren herrira joaten da filma uzteko. Aurretik, koor-



IBILBIDEA 1994an jaioa, Tinkok 100 film bikoiztu ditu, eta 5.000 emanaldi eskaini EAEko 40 udalerritan 750.000 haurrentzat. Ipar Euskal Herrian ere ari da lanean Udaleku elkartearekin, eta Nafarroan gauza bera egitea du erronka. Oraingoan, estreinaldiak egiten ditu Iruñean. Bera hasi zen Zinemaldian Belodromoan filmak euskaraz ematen. Ziurrenik ezinen du Durangon standik jarri, baina Irrien Lagunek lekua egingen diote. tinkoeuskara.org webgunean eta Elkarren eros daitezke filmak.

dinatzaileak filmeko balioei lotutako material didaktikoa bidaltzen die ikastetxeei. Drogo-menpekotasunaren aurkako Durangaldeko talde batek prestatzen du; txikitatik zenbat eta balio sendoagoak izan, errazagoa da drogei ezetz esatea. Haurra prestatu behar dugu, drogekin bezala, bestelako gaiekin, nortasuna garatzeko.

Nola ikusten duzu euskara helduen zineman? Nire ustean, bertan ekoiztutako filmak arrakastatsuagoak dira bikoiztutakoak baino, naturalagoak direlako. Ez gaude ohituta euskaraz bikoiztutako filmak ikusten. Horregatik hasi behar da txikitatik ohiturak sortzen, helduak direnean, euskarazko filmak nahiago izan eta eskatzeko. Hortik etorriko da aldaketa zinema komertzialetan.

Zuek hasi zineten Zinemaldian Belodromoan haurren-

tzako filmak euskaraz ematen. Bai, horregatik aurtan, 20. urteurrenean, sari bat eman diegu Mikel Olaciregui Zinemaldiko zuzendari izandakoari berak ahalbidetu zuelako gure haurrek banatzaile handien pelikula ikustea. **2004an Tinkoren izenean Anton Abbadia Saria jaso zenue-nean, hauxe esan zenuen: «Orain hamar urte areto komertzialetan zinema euskaraz ikusiko zela irudikatu genuen; hamar urte pasatu dira, eta ametsa bete egin da». Hamarkada bat geroago, bete da bertze ametsik?** Ez. Lehengo pixka bat zapuztu, besterik ez da egin. Izugarrizko ilusioa egin zidan sari horrek. Beste egun polit batekin akordatzen naiz, Zinemaldian kartel erraldoi bat euskaraz ikusi nuenekoa. "Chihiroren bidaia", Victoria Eugenia parean, denek

ikus zezaten euskara existitzen dela. Ogibidez bikoizlea nintzen eta hutsunea ikusten nuelako sortu nuen Tinko, euskararentzat esparru debekaturik ez egoteko. Denak gure inguruan euskarak zein gabezia dituen aztertu eta konpontzen arituko bagina, erdiak egingo bagenu... hortxe dago gakoa. **Beste ametsik betetzea espero duzu?** Bai! [Irri egiten du]. Nafarroan euskarazko filmak haurrentzat ematea da beste amets bat eta espero dut beste hogeitertan beteko dugula, seguru. **Epe luzea jarri duzu...** Tinkon hasi ginenean urrun ikusten genuen, eta pasa dira hogeitertu. Ez dakizu zeinen azkar etortzen diren! Nire ametsa zein den? Areto komertzial gutxietan gutxienez haurrentzako filmak euskaraz ere ikusi ahal izatea.